

Fruizko euskararen fonologiaz

Jon Andoni Uriarte Garate

0. SARRERA

Lan honek Fruizko hizkeraren fonologia aztertzea du helburutzat. Dena den, ez du fonologiaren esparru osoa ikutuko ez baititu bere baitan hartzen suprasegmentalen azterketa, hau da, azentuarena eta entonazioarena.

1. FONOLOGIA vs. FONETIKA

Atal honi hasiera emateko ezinbestekoa gertatzen da fonetika eta fonologiaren arteko bereizketa egitea. Horretarako R. Jakobson-en ondorengo zita oso egokia da¹:

"Mientras que la fonética trata de recoger la información más exhaustiva posible sobre la materia sonora bruta y sus propiedades

¹ R. Jakobson eta M. Halle (1956), *Fundamentos del lenguaje* (Carlos Piera-ren itzulpena), Madrid 1974, 20. orr.

fisiológicas y físicas, la fonemática, y la fonología en general, aplican criterios estrictamente lingüísticos para cribar y clasificar el material que proporciona la fonética."

Hau guztia kontutan izanik, **fonemak** proposatzen ditugunean hots errealetan oinarrituriko dexentezko abstrakzio maila baten ari gara, hitzen barruko posizio jakin baten aurkako unitate batzuk auresuposatzen ari baikara. Hizkera errealearen ikerketak argi eta garbi erakusten digu fonema bakarraren errealizaziotzat ditugun zenbait hots oso desberdinak izan daitezkeela hitzaren edo esaldiaren barruan duten kokapenaren arabera. Har dezagun adibide bezala Ezpainetako Herskari Ahostuna /b/. Fonema honek bi errealizazio desberdin ditu solasaldiko katean duen kokapenaren arabera: geldu-nearen ondorik edo sudurkari baten ondorik baldin badoa, [b] da emaitza baina beste posizio guztietan [b̥] dugu. Testuinguruaren arabera bi emaitza hauek **alofonoak** deituko ditugu. Beraz, eta ikuspegi klasikoari so eginez, bi maila proposatuko ditugu errepresentazio fonikorako: fonemei dagokiena, maila fonemikoa deritzona eta alofonei dagokiena, maila fonetikoa deiturikoa.

Dena den, arazoak sor litezke maila baten ala bestean ari garen jakiteko. Noiz du "fono"² batek fonema maila eta noiz ez? Tradizionalki, proba batzuk zeuden fonemak identifikatu ahal izateko; lau dira aipagarrienak: oposaketa, banaketa osagarria, antzekotasun fonetikoa eta bariazio askea³. Hauetarik erabiliena oposaketarena

² Bere kondizioa erabakitzeke duen unitate fonikoaz ari gara "fono" terminoa darabilgunean.

³ Honi guztiari buruzko informazio gehiagorako ikus J. Durand-en *Fundamentos de fonología generativa y no lineal*. (Roser Estapá-ren gaztelerazko itzulpena), Barcelona 1992, 7. orr. eta hurr.

Liburu honetan, azaleko oposaketaren nahikotasun ezaz ere ari da baina ez gara gu arazo horretan sartuko.

da: bi "fono" izanik, bata besteagaitik aldatzerakoan hitz berri bat sortzen bada, fonema desberdinak direla esan dezakegu. Bide hau erabili izan dute, hain zuzen, azkenaldiko euskalkien ikerlariek; besteak beste K. Rotaetxek eta I. Gamindek⁴. Gu ere azterbide berberari lotuko gatzaizkio.

2. SILABAREN EGITURA

Orain arte fonemez eta euren alofonoez aritu izan gara. Baina badira beste unitate fonologiko batzuk ere. **Silaba** dugu horietako bat. Jakobson-ek⁵ "el esquema elemental en torno al cual se constituye todo agrupamiento de fonemas" dela dio. E. Coseriu-k⁶, ordea, "es un sintagma fónico mínimo". Dena den, nabaria da fonema eta silaba ez direla mota bereko unitateak; lehena erlazio paradigmaticoetan sartzen den bitartean, bigarrenak hizketaldiaren katean du bere izatearen funtsa.


Hualderi⁷ jarraituz, ondoren ikusten dugun silabaren egitura proposa dezakegu Fruizko nahiz beste edozein euskalkirako:

⁴ Ikus euren doktorego tesiak bibliografian.

⁵ Op. cit. 41. orr.

⁶ *Lecciones de lingüística general*. Madrid 1981, 178. orr.

⁷ "A Phonological Study of the Basque Dialect of Getxo" in ASJU XXVI-1, 1992, 11. orr.



Egitura honetan, **O** -ingelezko **onset** hitzaren laburdura- hautazkoa den bitartean, **R** -ingelezko **rhyme**- derrigorrezkoa da. **N** laburdurak silabaren nukleoa adierazten du. **R**-ren azpian, halaber, hautazko eta izen gabeko bukaera egon daiteke; kasu honetan "st".

Hau guztia kontutan izan beharko da silabifikazio sistema arauztzeko egingo den edozein saiotan.

2. AZPISISTEMA KONTSONANTIKOA

Hona hemen, taula baten sailkaturik, Fruizko euskararen fonema guztien alofonoak⁸:

⁸ Transkribaketetarako erabiltzen dugun alfabetoa "Alfabeto de Filología Española" deritzana da, euskarari ondo datorkion birmoldaketaren bat edo beste ere ezarri diogularik. Alfabeto honen eta "Alphabet Phonétique International" deiturikoaren arteko erkaketa egin nahi izan ezker, ikus Txillardegiren *Euskal Fonologia*. Donostia 1980, 401. orr. eta hurr.

	Ezpainet.	Ezpain hortz.	Hortzetak k.	Bizk. hobi.	Hobiet	Sabai aurrek	Sabaik	Belo-koak
Hersk. Ahoskabe	P		t				t _v	k
Hersk. Ahostun	b		d				d _v	g
Sudurkar	m	m [^]	n _˘		n		n _v	
Frikari		f					y	x
Aproxim.	ḃ		ḋ					g
Frikari Txistuk.					ś / ź	s ^v / z ^v		
Afrikar.				c		c ^v	ŷ	
Albokari.			l _˘		l		l _v	
Dardark. Bakuna					r			
Dardark. Anizk.					r̄			

Ondoren, fonema eta alofono kontsonantikoen deskribapena egiten saiatuko gara ahots moldearen araberako sailkapea eginez.

2.1. Herskariak

Bi sailetan bereiz ditzakegu fonema herskariak; ahostunak eta ahoskabeak. Honako hauek dira:

Ahostunak: /b/, /d/ eta /g/ Ahoskabeak: /p/, /t/ eta /k/

Fonema ahostunek bi alofono dituzte:

- a) [b], [d] eta [g]. Hauek, hasiera absolutoan -edo geldiune baten ondorik- eta sudurkarien ostean bakarrik ager daitezke. [d]-ri dagokionez, /l/-ren ostean ere bai.
- b) [b̥], [d̥] eta [g̥]. Besteentzat aipatu ez diren ingurune guztietan ager daitezke.

Hauetz aparte, /t/ eta /d/ fonemek beste alofono bina dituzte:

- a) [t̪] eta [d̪]. Bi hauek, {i, i̯}____ eta {il, in, in̩}____ inguruneetan bakarrik agertzen dira, hots, palatalizazio automatikoaren ondorio bezala.
- b) [t] eta [d]. Beste ingurune guztietan.

Hona hemen adibide batzuk:

[a β a ð i̯e]	[o ti e]
[bi ð i̯e]	[po li t̪e]
[e in d̪e]	[ga]b u d̪e]

2.2. Frikariak eta afrikariak

Bost fonema frikari ditugu: /f/ ezpain hortzetakoa, /s/ hobietakoa, /ʃ/ eta /ʒ/ sabaiaurrekoak eta /x/ belokoa. Guztiak dira ahoskabeak /ʒ/ izan ezean.

Bi dira, bestalde, fonema afrikariak: /tʃ/ eta /tʃ/

2.2.1. /f/ eta /x/

Gehien bat maileguetan agertzen dira. Askotan, batez ere hiztun zaharren artean, /f/ eta /p/ edo /b/-ren arteko alternantzia eman ohi da zenbait testuingurutan:

[felipe] / [pelipe]

[frux] / [brux] edo [prux] (Fruiz)

[fanfaṛoye] / [panpaṛoye]

Hau guztia bat dator Mitxelenak dioskunarekin⁹:

"(...) y la reproducción de la fricativa sorda **f** por vasco. **b**, así como la permutación **b/f**, que parece indicar que **f**, labio-dental o bilabial, fue en un tiempo variante estilística de /b/ en algunos significantes."

Gutxitan bada ere, aurki dezakegu /f/ hitz jatorretan: [afari]

/x/ fonemari dagokionez ere, ia ezinezkoa gertatzen da jatorriz euskaldunak diren hitzetan. Baten bat aipatzekotan, [gisaxo] aipatu beharko litzateke. Dena den, eleizak finkaturiko terminoetan oso arrunta da: [xangoikoa], [xaune]... etabar. Pertsona izenetan ere erruz aurki daiteke: [xeśúś], [xuani], [xenera]...

2.2.2. /s̺/ eta /z̺/

/z̺/-ren fonema izaeraz zalantzarik gera ez dadin, oposaketa bidezko zenbait adibide jarriko ditut; bai /s̺/-rekiko eta bai beste zenbait fonemekiko:

⁹ *Fónetica Histórica Vasca*. (3. argitalp.) Donostia 1985, 374. orr.

[a^viʒe] (ahi) / [a^viʒe] (huraxe)

[ma^viʒe] (mahai) / [ma^viʒe] (gradu baxua adierazten duen adj.)

[i^vizen] (igo) / [i^vizen] (izan)

[e^vi^vinda^vna] (hik egin dun) / [e^vi^vinda^vna] (hark egin din)

[ʒ^voan] (joan) / [ʒ^voan] (huen)

Fonema ahoskabea ez daiteke hitz hasierako posizioan aurki; ahos-
tunak, aldiz, hitz bukaeran du debekua. Ondorioz:

Hasiera	Erdigunea	Bukaera
---	^v s	^v s
^v z	^v z	---

Ekialdetik mendebalderako direkzioan muga bat dago Fruizen /z^v/ fonemari dagokionez. Ekialderantza, Errigoitiatik aurrera, /x/ ebake-
ra du hitz hasierako posizioan, bokal artekoetan /z^v/ mantentzen dela-
rik. Mendebalderantza, ordea, /j^v/ dugu hasierako posizioan eta boka-
len artean ez da inolako kontsonanterik tartekatzen.

Dena den, eta [z^v] alofonoaz aparte, beste bi alofono ere baditu /z^v/ fonemak: [j^v] sabaiko afrikaria eta [y] ahoskune bereko frikaria. Lehenengoa, hitz hasieran eta kontsonante ostean agertzen da: [eśan^vyako], [j^vantzie]... Hala ere, kasu guzti hauetan [z^v] jar genezake-
en, erabilera zabalagokoa ere bera baita. Nire ustez aldagai estilistiko-
ak besterik ez dira [j^v] eta [z^v].

Sabaiko frikaria bokal arteko posizioan agertu ohi da, batez ere

bokalerdiaren kontsonantizazioa gertatu ohi den hitzetan: [botoye], [ařatoye], [gařtaye], [kampaye]... Batzuetan ordea, erdal jatorrizko hitzetan ere aurkituko dugu, nahiz eta askotan [ʃ] bezala egiten den:

[payařoa] edo [pařasoa]

2.2.3. /s/

Bi alofono ditu; bata ahoskabea eta bestea ahostuna: [š] eta [ž]. Bigarren hau kontsonante ahostunen aurrean kokaturik doanean gertatzen: [ežnie], [oņežđator]... Beste guztietan, ordea, [š] dugu: [šague], [gošo], [šabala]...

Silabikoa nahiz ez-silabikoa den /i/-ren ondorik doanean, {i, i}____ ingurunean alegia, palatalizatu egiten da:

[elišie], [aišie], [goiša], [išen]...

2.2.4. /c/ eta /č/

Bi hauek ahoskabeak dira eta ondoko banaketa dute hitz barruan:

Hasiera	Erdigunea	Bukaera
---	c	c
^v c	^v c	^v c

Hitz barruan, frikari/afrikari pareen arteko desberdintasunak neutralizatu egiten dira kontsonante baten ostean. Bai jatorrizko hitzetan eta bai maileguzkoetan, fonema afrikatuak bakarrik aurkituko ditugu:

- a) Bertoko hitzetan: "antza", "baltza", "buskentza", "nortzuk"...
- b) Maileguzkoetan: "antzar", "konfidxantza", "kartzela", "kaltze-tiñ", "kontzoleu"...

Baina beste zenbait mailegutun, agian berriagoak direlako edo -oso gutxi dira-, ez da goian aipaturiko neutralizazioa gertatzen: "ensaladie", "jersie", "personie"...

Esan berri dugunez, hitz mailako fenomenoak dugu afrikarizazio prozesu hau eta ondorioz, ez dugu aurkituko hitzen artean: "ibilsara", "esanseuen", "istersabala"...

Hitz mailako fenomenoak dela esan dugun arren, ez dirudi erator-bide atzizkiek ezartzen duten muga gainditzeko gai denik:

- TZAR. "gixonsarra" (gizontzarra)
"txakursarra" (txakurtzarra)
- ZALE. "gixonsalie" (gizonzalea)
"txakursalie" (txakurzalea)

Beraz, osagai lexikoaren lehen estratuan solik ezartzen da arau fonologiko hau¹⁰.

2.3. Sudurkariak

Hiru dira fonema sudurkariak: /m/, /n/ eta / η /. Hitzaren barruan hiru artikulazioen arteko kontrastea mantentzen den arren, ez da horrela gertatzen hasierako eta bukaerako posizioetan. Hasierako posizioan ez genezake / η / aurkitu; bukaerakoan ordea, ez dugu /m/ aurkituko onomatopietan edo izan ezik. Honoko taulan adieraz dezakegu:

¹⁰ Honi buruzko xehetasun gehiagorako, ikus 5. atala.

Hasiera	Erdigunea	Bukaera
m	m	---
n	n	n
---	$\underset{v}{n}$	$\underset{v}{n}$

Bokal altuaren ondorik, silabikoa izan nahi ez, /n/ palatalizatu egiten da. Ondorengo aukerak daude:

a) /VinV/ → [V(i) $\underset{v}{n}$ V]

/Vin/ → [V(i) $\underset{v}{n}$]

b) /CinV/ → [Cin \underset{v} V]

/Cin/ → [Cin \underset{v}]

Lehenengo bi erduetan, [i]-ren osteko sudurkaria palatalizatu egiten da tarteko nahiz bukaerako posizioan. Zenbaitetan, palatalizazioak bokalerdia irents dezake baina ez da erraza izaten hori ziurtatzea; horregaitik jarri dira, hain zuzen, parentesiak.

Beste bi erduetan, bokal silabikoaren osteko palatalizazioa adierazten da erdiguneko nahiz bukaerako posizioan¹¹.

Hona hemen zenbait adibide: "o(i)ñetakoak", "a(i)ñ", "diño", "dxakiñ", "miñ"...

Sudurkarien palatalizazio automatikoak zalantzan jar dezake / $\underset{v}{n}$ /-ren fonema izaera, izan ere Fruizko [V $\underset{v}{n}$] guztiek /Vin/ dute azpiegituran. Dena den, oposaketaren bidez egingo dugu berriro ere bi fonemon identifikazioa:

¹¹ Palatalizazio fenomeno hau oso zabala izan arren, ez da intentsitate berarekin ematen inguruko herri guztietan. Getxoko euskararen esaterako, erdigunean bakarrik ematen da. Bukaerako posizioan debekua dago: [oné] vs. [óin]. Ikus Hualderen "A Phonological Study of the Basque Dialect of Getxo" in ASJU XXVI-1, 1992, 7. orr.

"óñètàkòàk" (oinetakoak) / "ónètàkòàk / (hauetakoak)

"moñoa" (mototsa) / "monoa" (tximinoa)

"peñie" (kirol "peña") / "penie" (samina)

Beste alde batetik, hobietako sudurkaria ondoren doakion konsonantearen ahoskuneari asimila dakioke, lau alofono emanez; [ɲ] sabaikaria, [m] ezpainetakoa, [ɲ] hortzetakoa eta [] belokoa. Hona hemen adibide batzuk:

[kaɲteu], [e goða], [e šaɲčuś], [ešambiða]...

2.4. Albokariak

Bi dira fonema albokariak: /l/ eta /l̥/.

/n/-rentzat esan bezala, /l̥/ guztiak "il" sekuentziaren ondorio dira. Hala ere, ez dago arazorik oposaketa bidezko bi fonemen identifikazioa egin ahal izateko:

"olloa" (oiloa) / "oloa" (oloa)

"allegeu" (heldu) / "alegeu" (alegatu)

Beste alde batetik, /l/ albokariak hiru alofono dituela esan behar da: [l] horzkaria, [l̥] sabaikaria eta [l] hobietakoa. Lehenengo biak, hortzetako eta sabaiko -nahiz sabaiaurreko- kontsonanteen aurrean kokaturik daudenean gertatu ohi dira eta azkenekoa beste ingurune guztietan.

- Horzkaria: [ga l̥du], [a l̥tarik]...

- Sabaikaria: [maka l̥ču], [šaba l̥zeko śak]...

- Hobietakoa: [śoloa], [loka]...

2.5. Dardarkariak

Bi dira fonema dardarkariak; /r/ bakuna eta /̄r/ anizkuna. Lehenengoa, erdiko posizioan agertu ohi da gehien bat. Hala ere, oso kasu gutxitan, hitzaren azken posizioan ere koka daiteke¹²: [ūr], [platēr]...

Oposizio hau, r] eta r̄]-ren artekoa alegia, deklinabidean ere nabaritzen da¹³: "ure", "ureri", "urentzat" ...

"platera", "platerari", "platerantzat" ...

"sera", "serari", "serantzat" ...

Hasierako posizioari dagokionez, ez dezakegu dardarkaririk aurki jatorriz euskarazkoak diren hitzetan. Maileguetan, aldiz, [e] ala [a] bokal epentetikoak ezartzen dira berba hasierako /̄r/ dardarkari anizkunaren aurrean:

ratón > "arratoye" remedio > "erremididoxa"

razón > "arrasoye" raja > "arrakalie"

Rafael > "Errefel" rueda > "errubedie" ...

Dena dela, mailegu berriagoetan onartzen da hasierako /r/:

radio > "radidoxa"

ruleta > "ruletie"

¹² Ikus Txillardegiren *Euskal Fonologia*, Donostia 1980, 168. orr. Hitzaren azken posizioan /r/ duten berben zerrendatxoa damaigu. Oposaketa atxeki egiten da oraindik Fruizen, neutralizaziorako joera nabaria dagoen arren.

¹³ Eskumako kortxeteek hitzaren bukaera adierazten dute Hualderi -op. cit. 6. orr.- jarraituz.

2.6. Taula fonemikoa

Orain arteko deskribapena gogoan izanik, Fruizko hizkerari dagozkion fonema kontsonantiko guztiak jarriko ditugu ondorengo taulan:

	Ezpainet.	Ezpain hortz	Hortzetak. k.	Bizk. hobi	Hobiet	Sabai aurrek	Sabaik	Belo-koak
Herskari Ahoskabe	p		t					k
Herskari Ahostun	b		d					g
Sudurkar	m				n		n _v	
Frikari		f					y	x
Frikari Txistuk.					š	š ^v / ž ^v		
Afrikari				c		č		
Albokari					l		l _v	
Dardark. Bakuna					r			
Dardark.					r̄			

3. AZPISISTEMA BOKALIKOA

Inguruko euskalki guztietan bezala, bost fonema bokaliko ditugu Fruizko berbetan:

	Aurrekoa	Erdikoa	Atzekoa
Altua	i		u
Erdikoa	e		o
Baxua		a	

Artikulatzeko moduari so eginez, bokal altuak, erdikoak, eta baxuak ditugu mihia aho-sabaitik hurbil, erdibidean edo behekaldean kokatzearen arabera. Artikulatzeguneari dagokionez, aurrekoak, erdikoak eta atzekoak ditugu.

Bost bokal hauez aparte, [i] eta [u] bokal ez-silabikoak ditugu. Hauek, beheranzko diptongoen bigarren atala izan ohi dira, prosodikoki tonu baxuz markaturik dagoen bokal altu bat beste bokal baten atzetik doanean bokalardi bihurtzen baita, hots, silabikoari izateari utzi egiten dio.

Hona hemen zenbait adibide:

/ai/ [bai], [áititè], [máisùè]...

/ei/ [séi], [béitù]...

/oi/ [loi], [émòizè]...

/ui/ [kui], [suin]...

/au/ [lau]... Azken hauek oso gutxi dira, a ---> e / ____u arauaren ondorioz.

Zenbait mailegutan, goranzko diptongoak ere ager daitezke baina oso garrantzia gutxikoak direla esan behar da. /ie/ eta /io/ goranzko diptongoak oso arraroak dira; batzuetan kontsonante bat tartekatzen zaie bi bokalei eta beste batzuetan hiatuan egiten dira:

a) "estudidxe", "tertulidxe", "radidxo"...

b) "alabie", "semie", "obie"...

Baina badaude diptongo batzuk ere: "balientie".

/ua/, /ue/ eta /uo/ diptongoak goiko biak baino ugariagoak diren arren, oso garrantzia gutxikoak dira aipatu bezala: "aguanteu", "bueno", "kuadru"...

Dena den, joera nabaria dago diptongoak monoptongatzeko. Ondorengo adibideotan ikus daitekeenez, diptongo lehenkariak nahiz bigarrenkariak izan daitezke monoptongatzen direnak:

/au/ > /u/, /o/

"arrutzie"	(arraultza)
"esupidie"	(ezagupidea)
"iñtxurre"	(intxaurra)
"belune"	(belauna)
"arpidxe"	(aurpegia)
"esetu"	(ezagutu)
"iruli"	(irauli)
"garune"	(garaua)
"arrosidxe"	(aharrausia)

/eu/ > /e/, /o/

"bostun"	(bostehun)
"dere"	(deude, dute)
"neskidxo"	(neuskio, nioke)
"dosku"	(deusku, digu)

/ai/ > /i/

"gittus"	(gaitu)
"sittue"	(zaitue, zaituzte)
"usiñe"	(usaina)

Edozein [a], [e] bezala berridatziko da silabikoa zein ez-silabikoa den [i] nahiz [u] baten ondorik. Tartean kontsonanteren bat ere izan daiteke. Azken ezaugarri hau adierazteko, hautazkoa izatearena alegia, parentesiak erabili ditugu.

Aurrerantzean, hotsen ikurrak erabiliko ditugu arauak ematerakotan, era honetara begikolpe batez jabe baikaitezke hotsek jasaten dituzten transformazioez.

5. ARAUEN EZARPENA ETA FONOLOGIA LEXIKOA

Arteragoko atalburuan, arauak nola emanen ditugun adierazi da. Oraingo honetan, ostera, arau horiek ezartzerakoan gertatzen diren gorabeheraz mintzatuko gara, Fruizko arau fonologikoen sailkapen bat egiteko asmoz.

Har dezagun, adibide bezala "argittasune" hitza, zein morfologikoki ondorengo era honetara bana baitezakegu: argi-tasun-a. Beraz, bi arau aipa ditzakegu:

- 1) Bokal baxuen asimilazio araua:

$$a \rightarrow e / i, u, i_{\wedge}, u_{\wedge} (C_0) \text{ ____}$$

- 2) Hortzetako herskari ahoskabearen palatalizazio araua:

$$t \rightarrow t_{\vee} / i, i_{\wedge} \text{ ____ } V, \#$$

Dena den, eta adibidean ikusten den bezala, ez dirudi modu berean ezartzen direnik arau bi hauek. Bokal baxuaren asimilazioa ez daiteke ezar lexema eta eratorbideko atzizkiaren artean: "argittasun" eta ez *"argittesun". Deklinabide atzizkiei, ordea, ondo egokitzen zaie: "-tasune" eta ez *"tasuna".

Beste alde batetik, hortzetako herskari ahoskabeen palatalizazio arauak ez du inolako arazorik eratorbideko atzizkiengan eragiteko: "argittasun" eta ez *"argitasun".

Fonologia sortzaile tradizionalaren ikuspegitik¹⁴, era desberdinetako muga morfologikoak postulaturaz azaltzen zen hau guztia: /##argi#tasun+a##/, non deklinabide atzizkia muga ahul batez (+) loturik dagoen eta eratorbideko atzizkia muga indartsuago (#) batez. Hitzen arteko muga (##), noski, oraindik indartsuagoa da. Honen arabera, bokal baxuen asimilazioak muga ahula (+) gaindi dezake baina ez eratorbideko atzizkiek ezartzen duten muga (#). Hortzetakoen palatalizazio arauak, ostera, bi mugak gaintzen ditu baina ez hitzen artean (##) dagoena: [ekaĩtaloa] eta ez [ekarĩtaloa].

Fonologia lexikoaren helburuetariko bat, ostera, muga morfologiko ezberdinen postulaturaz gaintzea da¹⁵. Fonologia lexikoan, arauak ezartzeko bi modu proposatzen dira; edo lexikoan ezar daitezke, hitzen osaketarako arau morfologikoekin batera edo postlexikoki ezar daitezke, hitzak egitura sintaktikoetan txertatu ondorik. Beste era batera esanik eta Mohanan-i jarraituz ondorengo hau esan daitezke¹⁶: informazio morfologikoa behar duen edozein arau, arau lexikoa

¹⁴ Ikus Chomsky eta Halle-ren *The Sound Pattern of English*, Harper and Row, New York 1968. Lan honetan proposatzen den muga morfologiko ezberdinen postulaturaz, ondorengo lan ugarietan erabili izan da euskara azaltzeko ere.

¹⁵ J.I. Hualdek ezarri dizkio euskarari fonologia lexikoaren ekarpenak. Argitasun gehiagorako, ikus bere ondorengo hiru lan hauek: a) *A Lexical Phonology of Basque*. (Doktorego tesia) University of Southern California, Los Angeles 1988. b) "Fonología léxica y postléxica, con especial referencia a la lengua vasca" in ASJU XXIII-2, 1989, 651-662 orr. c) *Basque Phonology*, Routledge, London and New York 1991.

Badauka baita ere G. Elordietarekin batera sinatzen duen artikulua bat: "Arau lexiko eta lexiko-ostekoen ezberdintasunaz: bokalen asimilazioa Lekeitioko euskaran" in ASJU XXVII-2, 1993, 361-369 orr.

¹⁶ *The Theory of Lexical Phonology*, Reidel, Dordrecht 1986, 8-10 orr.

da eta informazio sintagmatikoa behar duena, aldiz, arau postlexikoa da. Dena den, lexikoaren barruan ezaugarri bereziak dituzten estratuak bereiz daitezke. Goian aipatu dugun bezala, deklinabide atzizkien ezarketari dagozkion ezaugarriak eta eratorbide atzizkiei dagozkienak ez dira berdinak. Hauez aparte, hitz elkarketari dagozkion ezaugarriak ere baditugu lexikoaren barruan.

Hau guztia kontutan izanik eta aipatu berri ditugun Hualderen lanak ere gogoan hartuz, honako era honetara labur dezakegu fonologia eta morfologiaren arteko interakzioa Fruizko euskaran:

OSAGAI LEXIKOA:		
	Morfologia	Fonologia
Lehen estratua:	Deklinazioa	(Zenbait arau)
Bigarren estratua:	Eratorbidea	(Zenbait arau)
Hirugarren estratua:	Hitz elkarketa	(Zenbait arau)
OSAGAI POSTLEXIKO A:		
	Sintaxia	(Zenbait arau)

Morfologiari dagozkion osagai lexikoaren hiru estratuak ematera-koan, azterbide nagusiak bakarrik aipatu dira, hots, deklinazioa, eratorbidea eta hitz elkarketa. Jakin bedi estratu bakoitzari buruzko zehaztasun gehiago beharko litzatekeela, bakoitzaren barruan bestelako atzizki batzuk ere jarriz eta estratu batzuetan salbuespen direnak besteetan birsailkatuz. Bukaeran egingo da antolamendu orokorrerako saioa.

Arau fonologikoak ez ditugu oraindik azaldu eta, beraz, ez ditugu kuadru honetan sartu.

6. ARAU FONOLOGIKOEN ORDENAZ

Arau fonologikoek, maila lexikoan nahiz postlexikoan ezartzeaz gain, beste ezaugarri bat ere badute: elkarren artean ordenaturik daude. Kontzeptu honi buruzko xehetasun gehiago Bromberger eta Halle-rengan aurki dezakegu¹⁷.

Guri dagokigunez, adibide batekin azalduko dugu arau fonologikoak ordenaturik ematearen ezinbestezkotasuna. Azter ditzagun horretarako "umie" eta "begidxe" hitzen deribazioak:

	/ume-a/	/begi-a/
[→ ž / i, i _̂ ___ a, o	----	begi ^v a
e → i / ___ a	umia	----
a → e / i, u, i, u (C ₀) ___	umie	begi ^v e

Lehenengo araua eta bigarrena ordenaz aldatuko bagenitu, ondorengo emaitzak genituzke:

	/ume-a/	/begi-a/
e → i	umia	-----
[→ ž	umi ^v a	begi ^v a
a → e	umi ^v e	begi ^v e
	*[umi ^v e]	[begi ^v e]

Lehenengo emaitza, hots, *"umidxe", ez da posible inongo hizkeran. Beraz, erdiko bokalaren igotzea (e → i) burutzen denean, sabaiaurrekoaren ezarketa arauaren ([→ z) garaia igarota dago jada-

¹⁷ "Why Phonology is Different" in LI 20.1, 1989, 51-70 orr.

nik. Beste era batera esanda, kontsonantea tartekatzen duen araua bokalaren iguera erabakitzen duena baino lehenago ezarri behar da.

7. TALDE KLITIKOAK

Talde klitiko bat, arau fonologikoekiko hitz bat bezala funtzionatzen duen unitatea da baina morfosintaktikoki edo semantikoki hitz bat izan gabe. Talde hauek arazo teorikoa sortzen dute, postlexikoki osatzen diren unitateak izanik arau lexikoen eraginpean egon baitaitezke. Fruizko hizkeran, talde klitikoak osatzeko balio duten hiru elementu aipa ditzakegu:

/da/ kopula, /bat/ zenbatzailea eta /ta/ juntagailua.

Hara hemen zenbait adibide:

"txakurbet" (txakur bat)

"eiñdde" (egin da)

"orikusi tte dxoan eiñ dde" (hori ikusi eta joan egin da)

Hiru adibide hauetan, lehen estratuko arau lexikoa den bokal baxuen asimilazioa talde postlexiko baten ematen da eta, beraz, onartu egin beharko dugu talde klitikoak estratu lexikoetara "itzul" daitetzekeela eta haiei dagozkien arauak jasan ditzaketela.

Klitikoei eskainiriko atal honetan, EZ aditzondoa ere aipatu behar da aditz laguntzaileaz nahiz trinkoaz "bateginik" doanean, bi prozesu fonologiko burutzen baitira:

"enoa"	(ez noa)
"elei"	(ez lei, leike, lezake)
"estakar"	(ez dakar)
"eskoas"	(ez goaz)

...

Beraz, ondorengo arau biak proposa ditzakegu:

ś → [/ ____ n, l, s
b, d, g → p, t, k / es ____

Bi arau hauek ez dira inoiz ezartzen jarraian lerritzen diren adibideotan:

"es neguen"	(ez neguan)	*"eneguen"
"es bota"	(ez bota)	*"espota"
"es gurie"	(ez gurie)	*"esgurie"
...		

Ondorioz, osagai lexikoko 1. estratuan burutzen diren prozesu fonologikoak ditugu EZ proklitikoari dagozkion bi prozesu hauek ere.

8. PROZESU FONOLOGIKO NAGUSIAK

Atal honetan, prozesu fonologiko nagusien berri emango dugu 4. atalean adieraziriko eta orain arte ere erabili izan den errepresentazio motaren bidez. Bi sailetan bereiztuko ditugu prozesuok; bokalei dagozkienak eta kontsonanteei dagozkienak.

8.1. Bokalei dagozkien prozesuak¹⁸

8.1.1. Bokal osteko bokalerdiaren osaketa

Bere aurreko bokalaren tonu berea edo baxuagoa duen bokal altua, bokalerdia bihurtzen da.

¹⁸ I. Gamindek artikulu interesgarri bat dauka oinari mugatzaile singularra erastean gertatzen diren aldaketez, hauen arabera bizkaieraren sailkapena ere egiten duelarik. Hala ere, berak ez ditu azaltzen diptongo bukaera duten oinak. Ikus "Bokalen asimilaziorako erregela fonologikoak Bizkaiko euskaran" in *Enseiukarreen* (Deustuko Unibertsitatea), 1993, 51-61 orr.

Adibideak:

[kòipíé] [bái]

[gèušíé] [máíshè]

ARAU: i, u → i, u / V_____

8.1.2. Bokal baxuen arteko disimilazioa

Elkarren ondoan eta hitz bukaerako posizioan dauden bokal baxu bi disimilatu egiten dira bietariko lehenengoa igoaz.

ARAU: a → e / _____a]

8.1.3. Kontsonante ezarketa

Aurreko bokal altuaren eta [a] edo [o]-ren artean, sabaiaurreko txistukari frikari ozena tartekatzen da.

ARAU: [→ ẓ / i, i _____ a, o

8.1.4. Erdiko bokalen igotze eta bokalerditzea

Erdiko bokalak, igo eta bokalerdi bihurtzen dira altua ez den bokal baten ondorik.

ARAU: e, o → i, u / [-altua]_____

8.1.5. Erdiko bokalaren igotzea

[e] bokal erdikoa igo egiten da bokal baxu baten aurretik.

ARAU: e → i / _____[+baxua]

8.1.6. Bokal baxuen asimilazioa

Bokal baxua igo egiten da beste bokal altu baten ondorik doanean. Bokal bien artean kontsonanteak egon daitezke.

ARAU: a → e / i, u, $\underset{\wedge}{i}$, $\underset{\wedge}{u}$ (C₀)_____

8.1.7. Bokalerdien kontsonantizazioa

Silaba hasierako posizioan bokal altuak kontsonante bihurtzen dira: i → y eta u → w.

Adibideak: [bayec] [aratoye]
[oye] [papawe]

ARAU: i, u → y, w / V_____V

8.2. Kontsonantei dagozkien prozesuak

8.2.1. Sudurkarien eta albokarien asimilazioa

Kontsonante sudurkariak ondoren doakien kontsonantearen ahoskunera asimilatzen dira. Geldiune edo bokal baten ostean hobietako errealizazioa dute:

[e $\underset{\vee}{s}$ an $\underset{\vee}{z}$ ok]	[e $\underset{\vee}{m}$ o $\underset{\vee}{n}$ çet]
[e $\underset{\vee}{s}$ kompa $\underset{\vee}{r}$ i $\underset{\vee}{z}$ e]	[e $\underset{\vee}{s}$ ambarik]
[ka $\underset{\vee}{n}$ teu]	[e $\underset{\vee}{s}$ an $\underset{\vee}{d}$ eu]
[e got]	[i $\underset{\vee}{n}$ o ka $\underset{\vee}{l}$ tie]

8.2.3.1. Herskari ahoskabearen aurrean:

[šupašešu] "suk pase (do)su"

[eštokendu] "estot kendu"

[nipencedot] "nik pentze dot"

8.2.3.2. Herskari ahostunaren aurrean

Herskari ahostunaren aurreko herskari ahoskabearen ezabatzea, beste prozesu batekin lotuta dago, ahostunaren ahoskabetzearekin alegia. Bigarren prozesu hau, hurrengo atalean (8.2.4.) emango dugu. Hala ere, hemengo adibideak bi prozesuak burutu ondorengoak dira, bata ematen denean bestea automatikoki ematen baita:

[bapeš] "bat bes"

[nitekot] "nik dekot"

[bakařikauš] "bakarrik gaus"

8.2.3.3. Frikarien aurrean

[bafaltada] "bat falta da"

[nišeřdakit] "nik ser dakitt"

[guxošeگاš] "guk Josegas"

8.2.3.4. Frikari ahostunaren aurrean¹⁹

Herskariaren ezabatzeaz aparte, beste prozesu bat ere ematen da automatikoki: txistukariaren afrikatzea eta ahoskabetzea:

¹⁹ I. Gamindek bi joera nagusi bereizten ditu bizkaieran holako inguruneetan: /orreyosi/, /bayan/... Getxon egiten den bezala, eta /orretxosi/, /batxan/... Zeberioko eredia. Ikus "Irakurmena eta euskal fonologiaren arazo batzuk" in *Tantak* 9 (EHU), Maiatza 1993, 123. orr.

[ba ^v can]	"bat dxan"
[neuco ^v si]	"neuk dxosi"
[o ^v rećakik]	"orrek dxakik"

8.2.3.5. Sonoranteen aurrean

[o ^v rela ^v r]	"orrek lar"
[bala ^v rda]	"bat lar da"
[gunorano ^v]	"guk noraño"

Herskarien ezabaketa, ondorengo arauaren bidez eman dezakegu:

t, k → [/ ____ [+herskari], [+frikari], [+sonorante]

8.2.4. Herskarien ahoskabetzea

Aurrerago esan bezala, herskarien ahoskabetzea herskarien ezabaketarekin lotua dago, ahoskabetzea burutu ondoren automatikoki ezabaketa ematen baita. Ondoren jarriko diren adibideak 8.2.3.2. atalean jarrikoen parekoak dira:

[ikušdokero]	"ikus dot gero"
[neutarroat]	"neuk daroat"
[bapidot]	"bat bidot" (lit. bat behar dot)
ARAUA:	b, d, g → p, t, k / t, k ____

8.2.5. Kontsonante aurreko afrikarien frikarizazioa

Kontsonante baten aurrean, /c/ fonema [s] -[z] kontsonante ahos-tunen aurrean- bilakatzen da eta /c/-ren emaitza [s] da:

[ga ^v rašcu]	"garratz+txu"
-------------------------	---------------

[śa žbarik] "sats#barik"

[gaśḑau] "gatx#dau"

ARAUA: c, ċ → ś (ž), ś / ____ C

8.2.6. Degeminazioa

Elkarren ondoko kontsonante berdin bi sinplifikatu egiten dira:

[aśaluśe] "asal luse"

[aśtoanator̄] "astoan nator"

[eśkuśar̄tu] "eskus sartu"

ARAUA: C₁ + C₁ → C₁

8.2.7. Herskarien frikarizazioa

Fonema kontsonantikoen definizioa egiterakoan -2.1 atala- esan bezala, /b,d,g/ fonemak frikari bezala egiten dira hasieran edo sudurkarien ondoan egon ezik. /d/-ren kasuan /l/-ren ostean ere:

[aḑaḑie] [lagune] [śa]du]

[ar̄ḑi] [alḑoa] [śalgai]

8.2.8. Palatalizazioa

Euskal palatalizazioaren nolabaiteko definizioa egitekotan, L. Oñederra-ren ataltxo honi aproposkoa deritzogu²⁰:

²⁰ *Euskal fonologia: palatalizazioa*. EHU, Donostia 1990, 38 orr.

"Euskarazko palatalizazioa asimilazio aurrekaria edo iraunkorra (*progresiva* edo *persistente*) dugu. Esaldi bakarrean adieraztekotan, bokal(erd) palatal goiko edo itxienak ondorengo kontsonanteari bere ahoskune edo artikulazio puntua "kutsatzen" diola esan daiteke: bokalaren artikulatzaileek (mihigaina eta ahosabaia) iraun egiten dute hurrengo kontsonantea ahoskatzean, kontsonantearen ahoskunea aldatuz."

Esan behar da, baita ere, Fruizko palatalizazioa automatikoa dela: zenbait kontsonante beti palatalizatzen da goiko bokal(erd) palatalaren ondorik. Baina asimilazio honek arazo bat sortzen du eragilea bokalardia denean; ez da batere erraza izaten palatalizazioaren sorburua izan den bokalardia, berak palatalizatu duen kontsonanteak irensten duen ala ez jakitea. Holmer eta Abrahamson²¹ ere konturatu ziren irristariaren presentziak jabetzeko sailtasunaz: [oitik] ala [otik] behar du? Navarro Tomás-ek²² ere palatalak ez duela beti erabat irristaria irensten dio Gernikako euskara aztertzerakoan.

Palatalizazio izenez ezagutzen dugun prozesua, bost arau ezberdinez eman dezakegu eta horietatik dira, hain zuzen, ondorengo puntuotan aztertuko ditugunak:

8.2.8.1. $n, l \rightarrow \underset{v}{n}, \underset{v}{l} / i, i \text{ _ } \underset{\wedge}{\text{ _ }} V,]$

Sudurkaria eta albokaria beste bokal baten aurrean nahiz bukaerako posizioan egon daitezke:

[alegine] [il] [ol_voa]²³ [on_ves] [m_vin] [e_vsin]

²¹ Ikus "Apuntes vizcaínos" in ASJU-II, 1968, 87-141 orr.

²² "Observaciones fonéticas sobre el vascuence de Guernica" in Tercer Congreso de Estudios Vascos, San Sebastián 1923, 51. orr.

²³ Esana dugu ez dela erraza kontsonanteak irristaria irensten duen ala ez jakitea: "olloa"/"oilloa". Gogoan har bedi zailtasun hau ondorenean jarriko diren adibide guztiak aztertzerakoan.

Dena den, arau honek badu oztoporen bat edo beste: /in/ edo /il/ hitzaren bukaera badira eta katea mintzatuan hurrengo datorren hitza kontsonantez hasten bada, debekua dago arau hau bete dadin:

[il_vsen] [mutil_vbet] [sei_v gure_vdeu] [mimbarik]²⁴

8.2.8.2. d, t → d_v, t_v / in, il, in_v, il_v ____ V

Hona hemen zenbait adibide:

[ilde_v] [eindosku_v] [arindoa_v] [ibilten_v] [fa_vsi_vdato_vr] [il_vten]

8.2.8.3. t → t_v / i, i_v ____ V,]

[acit_vu] [polite_v] [aite_v] [baite_v] [bi_vskita_vra] [polita_vsune]

8.2.8.4. s → s_v / i, i_v ____ V,C,]

Bokal nahiz kontsonante aurretik edo bukaerako posizioan eman daiteke:

[isilik]²⁵ [abisue_v]

[istorize_v] [aisie_v]

Dena den, i____i ingurunea debekua izan daiteke palatalizazioa gerta dadin:

[poli_vsi], [noti_vsi], [iki_vsi]...

Baina ez beti: [bi_vsi]

²⁴ Sudurkariei dagozkien bi adibideotan, ez da esan nahi ez dela palatalizazio araua bete. Baliteke palatalizazio arauaren ondoren sudurkarien asimilazio araua ezartzea, eta ondorioz, palatalizazioa gertatu ez balitz bezala agertzea.

²⁵ Albokaria ez da palatalizatzen, hitz berean /s/ palatalizatzen baita.

8.2.8.5. $c \rightarrow \underset{\wedge}{\underset{\vee}{c}} / i ____ V$

[gaca] [aca] [acu̅re] [areca]

9. ARAU FONOLOGIKOEN SAILKAPENA

Atal honetan, orain arte ikusi ditugun arau fonologiko guztiak sailkatuko ditugu. Sailkapen hau, arterago ikusitako fonologia lexi-koaren eskutik egingo da, hots, arauak hitz mailan ala esaldi mailan ezartzen direnaren arabera. Arau bakoitzaren alboan, parentesi artean, arauari dagokion laburdura jarriko da, gero deribazioak egitera-koan arau horiei erreferentzia egiten dioten laburdurak bakarrik erabiliko ditugularik.

FONOLOGIA

OSAGAI LEXIKOA

Lehen estratua

- Bokal osteko bokalerdiaren osaketa (BOBO)
- Bokal baxuen arteko disimilazioa (BBAD)
- Kontsonante ezarketa (KE)
- Erdiko bokalen igotze eta bokalerditzea (EBIB)
- Erdiko bokalen igotzea (EBI)
- Bokal baxuen asimilazioa (BBA)
- Bokalerdien kontsonantizazioa (BK)

- Palatalizazioa:
 - $n, l \rightarrow \underset{v}{\overset{v}{n}}, \underset{v}{\overset{v}{l}} / i, \underset{\wedge}{i} \text{ _____ } V,]$ (PLN)
 - $\acute{s} \rightarrow \underset{v}{\overset{v}{s}} / i, \underset{\wedge}{i} \text{ _____ } V, C,]$ (PS)
 - $c \rightarrow \underset{v}{\overset{v}{c}} / \underset{\wedge}{i} \text{ _____ } V$ (PC)
- EZ proklitikoari dagozkion bi arauak
- Arau suprasegmentalak:
 - Marka lexikalaren araua (ML)

Bigarren estratua

- Palatalizazioa:
 - $t \rightarrow \underset{v}{\overset{v}{t}} / i, \underset{\wedge}{i} \text{ _____ } V,]$ (PT)

Hirugarren estratua

- Hitz elkarketari dagozkion zenbait arau
 - Palatalizazioa:
 - $d, t \rightarrow \underset{v}{\overset{v}{d}}, \underset{v}{\overset{v}{t}} / in, il, \underset{\wedge}{in}, \underset{\wedge}{il} \text{ _____ } V$ (PDT)
 - Silabifikazioa (SIL)
 - Arau suprasegmentalak:
 - Azentuaren arau orokorrak (ASO)

OSAGAI POSTLEXIKO A

- Sudurkarien eta albokarien asimilazioa (SAA)
- /s/-ren ahostun asimilazioa (S-Z)
- Herskarien ahoskabetzea (HA)
- Kontsonante aurreko herskarien ezabaketa (KAHE)
- Kontsonante aurreko afrikarien frikarizazioa (KAFF)
- Degeminazioa (D)
- Herskarien frikarizazioa (HF)
- Birsilabifikazioa (BISI)
- Arau suprasegmentalak:
 - Entonazio arauak (EA)

Kuadro honetan, arau suprasegmentalak -azentuarenak eta entonazioarenak- ere jarri dira lan honetan aztertuko ez ditugun arren. Beste alde batetik, /d/ eta /t/-ren palatalizazio arauak (PDT) arazo teoriko bat sortarazten digu. Eman ditzagun ondorengo adibideak:

"eiñddosku" (egin deusku, digu)

"ariñddoas" (arin doaz)

...

Baina beste alde batetik:

"ein domekan" [e^hindomekan] (egin domekan)

"arin denporie" [arindemporie] (arin denbora)

Hasiera baten, arau honek hitzaren eremua gainditu egiten duela esan daiteke, hitzen artean ere ematen baita. Baina ikusten denez, salbuespenak ere baditu aditz nagusi/laguntzaile eta galdegaia/aditza inguruneetan bakarrik ematen baita. Arazo honi aurre egiteko bi irtenbide dira posible. Alde batetik, arau postlexikal bezala aurkez dezakegu, baina honetarako bi estratu proposatu beharko lirateke osagai postlexikoan ere, salbuespenei nolabaiteko irtenbidea emateko. Lehenengo estratuan, galdegaiak eta aditzak osatzen duten unitateari dagozkion arauak leudeke eta bigarreanean, beste guztiak.

Beste alde batetik, klitizazioaren bidez azal daiteke hau guztia. Galdegaiak eta aditzak talde klitiko bat osatzen dute maila postlexiko baten baina gero, estratu lexiko batera itzultzen da estratu horri dagozkion arauak jasanez.

Fonologia mailan osatu dugun kuadru honek, morfologia eta sintaxi mailako beste honekin interaktuatzen du:

OSAGAI LEXIKOA

MORFOLOGIA

Lehen estratua

- Artikulua: -a, -ak
- Deklinabidea:
 - Adlatiboa: -ra
 - prolatiboa: -tzat
 - soziatiboa: -gas
 - adlatibo bukatuzkoa: -ra(i)ño
 - adlatibo bide zuzenekoak: -rantza
- Eratorbiderako atzizkiak: -ka, -tza
- Estratu honetara itzultzen diren klitizazioak:
EZ partikula, BAT zenbatzailea,
(E)TA juntagailua eta DA aditza.

Bigarren estratua

- Deklinabidea:
 - Inesiboa: -tan
 - Ablatiboa: -tarik
 - Adlatibo bukatuzkoa: -tara(i)ño
 - Adlatibo bide zuzenekoak: -tarantza
 - Motibatiboa: -gaittik
 - Bizidunen adlatiboa: -ga(i)ñe
- Eratorbiderako atzizkiak: -tar, -tasun, -tona

Hirugarren estratua

- Hitz elkarketa
- Eratorbiderako atzizkiak:
 - garri, -garren, -toki, -aldi, -kada
- Galdegaia+aditza eta aditz nagusia+laguntzailea
klitizazioak estratu honetara itzultzen dira.

OSAGAI POSTLEXIKOA

SINTAXIA

Klitizazio guztiak

10. ARAU FONOLOGIKOAK NOLA EZARRI: ZENBAIT ADIBIDE

Atal honetan, arau fonologikoak nola ezartzen diren ikusiko dugu zenbait adibideren bidez. Lehenengo eta behin, estratu ezberdinetan kokatzen diren atzizkiak nola ezartzen diren ikusiko dugu eta ondoren, zenbait berbari artikulua gehitzerakoan sor daitezkeen bokal asimilazio guztiak aztertuko ditugu.

10.1. -Tasun eta -toki atzizkiak

	[[argi]2[taśun]1[a]]	[[^v caři]3[toki]1[a]]
Morfo1	[[argi]2[taśuna]]	[[^v caři]3[tokia]]
KE	-----	[[^v caři]3[tok ^v ıza]]
BBA	[[argi]2[taśune]]	[[^v caři]3[tok ^v ize]]
Morfo2	[argitaśune]	-----
PT	[argitaśune _v]	-----
Morfo3	-----	[^v cařitok ^v ize]
Sintaxia		
HF	[argitaśune _v]	-----

Kortxeteen arteko parentesiek atzizkia ezartzen den estratua adierazten dute eta Morfo1, Morfo2 eta Morfo3 laburdurek ere morfologia mailako estratuei egiten die erreferentzia. Arau fonologikoak, ordea, laburdurez adierazita daude; 9. ataleko kuadrutan ezarririko laburdurak dira hain zuzen.

10.2. -A artikularen ezarketa

Artikulua lehen estratuan ezartzen den atzizkia izanik, estratu honi dagozkion arauak soilik agertuko zaizkigu ondorengo deribazioetan:

	[[alaba]1[a]]	[[sɛme]1[a]]	[[idi]1[a]]	[[ašto]1[a]]
Morfo1	[alabaa]	[sɛmea]	[idia]	[aštoa]
BBAD	[alabea]	-----	-----	-----
KE	-----	-----	[id ^v ɪza]	-----
EBI	[alabia]	[sɛmia]	-----	-----
BBA	[alabie]	[sɛmie]	[id ^v ɪze]	-----
	[[ešku]1[a]]	[[zai]1[a]]	[[soi]1[a]]	[[ui]1[a]]
Morfo1	[eškua]	[zai ^v a]	[soia]	[uia]
BOBO	-----	[zai ^v a]	[soia]	[uia]
KE	-----	[zai ^v ɪza]	[soi ^v ɪza]	[ui ^v ɪza]
BBA	[eškue]	[zai ^v ɪze]	[soi ^v ɪze]	[ui ^v ɪze]
	[[oe]1[a]]	[[gaštae]1[a]]	[[papau]1[a]]	[[kee]1[a]]
Morfo1	[oea]	[gaštaea]	[papaua]	[keea]
BOBO	---	-----	[papaua]	----

EBIB	[oia]	[ga ^ˆ staia]	-----	[keia]
BBA	[oie]	[ga ^ˆ staie]	[papaue]	[keie]
Silabifik.	[o.ie]	[ga ^ˆ s.ta.ie]	[pa.pa.ue]	[ke.ie]
BK	[oye]	[ga ^ˆ staye]	[papawe]	[keye]

Azken adibideotan "oe", "gastae", "kee", "kanpae"... bezalako formak proposatu behar dira azpiegituran, deribazioak ondo aterako badira. Hizkuntz ekoizpenean "oi bet", "gastai bet"... esaten den arren, derrigorrez proposatu behar da azpiegituran E bukaeradun berbak direla. Bestela, "soi" / "oi", "dxai"/"gastai"... bikoteek emaitza bera beharko lukete artikulua erasterakoan; "soidxe" eta *"oidxe", "dxaidxe" eta *"gastaidxe". Hori ez da horrela gertatzen. Beraz, diakronikoki gainditurik dauden formak izanik ere, bokalen asimilazio-arako erregeletan present daude "oe", "kanpae", "gastae", "morroe", "kee", "bae" (bahe), "bee" (behe)... bezalakoak.

Beste alde batetik, -ON bukaeradun maileguzko hitzentzat ere -OE bukaera proposatu behar da azpiegituran: "kamioye", "milloye", "pijoye", "montoye", "pelotoye"...

11. ERANSKINA: transkribaketak.

Lan honetan agertzen diren herri-hizkeraren adibideak era bitara emanik daude: transkribaketa ortografikoz eta transkribaketa fonetiko-koz. Lehenengoak komatxo (,) artean adierazten dira eta bigarrenak kortxete ([]) artean. Hona hemen mota bien arteko kidetasuna:

[p] → "p"	[t] → "t"	[t̪] → "tt"	[k] → "k"
[b], [β] → "b"	[d], [d̪] → "d"	[d̪] → "dd"	[g], [g̪] → "g"

[m] → “m”	[n], [ɲ], [ɲ] → “n”	[ɲ̃] → “ñ”	[f] → “f”
[y], [ÿ] → “y”	[x] → “j”	[z̃], [s̃] → “s”	[s̃̃] → “x”
[z̃̃] → “dx”	[c] → “tz”	[č̃] → “tx”	[l̃], [l̃̃] → “l”
[l̃̃] → “ll”	[r] → “r”	[r̃] → “rr” (erdiko posizioan)	
			→ “r” (hitz hasieran eta bukaeran)

BIBLIOGRAFIA

- BROMBERGER, S.; HALLE, M. (1989), "Why Phonology is Different" in *LI*, 20.1, 51-70 orr.
- COSERIU, E. (1981), *Lecciones de lingüística general*, Madrid.
- CHOMSKY, N.; HALLE, M. (1968), *The Sound Pattern of English*, Harper and Row, New York.
- DURAND, J. (1990), *Fundamentos de fonología generativa y no lineal* (R.Estapà-ren gatzelerazko itzulpena), Teide ed., Barcelona 1992.
- GAMINDE, I. (1992), *Urduliz eta Gatikako herri hizkeren azterketa linguistikoa* (Doktorego tesia), Deustuko Unibertsitatea.
- GAMINDE, I. (1993-a), "Bokalen asimilaziorako erregela fonologikoak Bizkaiko euskaran" in *Enseiukarrean* (Deustuko Unibertsitatea), 51-61 orr.
- GAMINDE, I. (1993-b), "Irakurmena eta euskal fonologiaren arazo batzuk" in *Tantak* 9 (EHU), 121-126 orr.
- HOLMER, N.; ABRAHAMSON, V. (1968), "Apuntes vizcaínos" in *ASJU* II, 87-141 orr.

- HUALDE, J. I. (1988), *A Lexical Phonology of Basque*, University of Southern California.
- HUALDE, J. I. (1989), "Fonología léxica y postléxica, con especial referencia a al lengua vasca" in ASJU XXIII-2, 651-661 orr.
- HUALDE, J. I. (1991), *Basque Phonology*, Routledge, London and New York.
- HUALDE, J. I. (1992), "A Phonological Study of the Basque Dialect of Getxo" in A.S.J.U XXVI-1, 1-117 orr.
- HUALDE, J.I.; ELORDIETA, G. (1993), "Arau lexiko eta lexiko-osteko-en ezberdintasunaz: bokalen asimilazioa Lekeitioko euskaran" in A.S.J.U. XXVII-2, 361-369 orr.
- JAKOBSON, R; HALLE, M. (1956), *Fundamentos del lenguaje* (Carlos Piera-ren gaztelerazko itzulpena), Madrid 1974.
- MITXELENA, K. (1985), *Fonética histórica vasca* (3. argitaraldia) Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- MOHANAN, K.P. (1986), *The Theory of Lexical Phonology*, Reidel, Dordrecht.
- NAVARRO, T. (1923), "Observaciones fonéticas sobre el vascuence de Guernica" in Tercer Congreso de Estudios Vascos, Donostia, 49-56 orr.
- OÑEDERRA, L. (1990), *Euskal fonologia: palatalizazioa*, EHU, Donostia.
- ROTAETXE, K. (1978), *Estudio estructural del euskara de Ondárroa*, Leopoldo Zugaza ed., Durango.
- TXILLARDEGI (1980), *Euskal fonología*, Ediciones Vascas ed., Donostia.